



ABERASTA-
SUNAREN
BANAKETA
ZUZEN BATEN
ALDE

Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Aldizkaria

21. alea, 2013ko maiatza



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK.....	2
ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA.....	2
BALIABIDEAK	4
ALIA NTZAK	4
IKASLEAK.....	5
ESKOLAK ANTOLATUTAKO EDO BERMATUTAKO JARDUERAK	6
ELKARRIZKETAK.....	7
UPV/EHUKO INTERESEKO AKORDIOAK ETA ERABAKIAK.....	9
INTERESEKO ARAU OROKORRAK.....	10

[Para acceder al contenido en Castellano, pulsa aquí.](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea


AURKEZPENA

Aldizkariaren ale honetan, lehenik eta behin, Eskolako langileriaren arteko aldaketak ageri dira. Gainera, ikusiko denez, politika eta estrategiari buruzko atalean kontu askoren berri ematen da. Aurten jasan beharreko aurrekontuaren murrizketa funtsezko aukeria da. Hala ere, aliantza berriak lortzearen lan egiten jarraitzen dugu. Ikasleriari dagokionez, hogeitabate Marinaledara egindako bidaia nabarmendu behar da. Bestetik, azken hilabeteetan Eskola jarduerak askoren toki izan da, eta horiei guztiei buruzko informazioa jasotzen da. Azkenik, Bilbon ekainaren 7an eta 8an egingo den Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren Epaimahaia ezagutzera emateko elkarrizketa bat sartu dugu.

[Aldizkari hau idazterakoan sexuen arteko berdintasuna gordetzen saiatu gara.](#)

Argitaratzeko zerbait bidali nahi baduzu egizu helbide honetara (nieves.arrese@ehu.es).

IRAKASLEAK, IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK



Iñaki Larrañaga irakaslearen erretiroa: Urte askotan Ikastegian eskolak eman dituen Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea den Iñaki Larrañaga jubilatu da. Azken Eskola Batzarrean, bera organo horretako kidea da, publikoki adierazi zuen bere egoera berria, eta bertaratutakoei esker oneko hitzak zuzendu zizkien. Lerro hauetatik Eskolaren martxa onaren alde egindako ekarpenak eskertu eta bere bizitzaren etapa berri honetan goza dezala opa dizkiogu.

AZPn aldaketak: Maiatzaren hasieran UPV/EHUko AZPko lekuz aldatzeek sakon eragin diote Eskolari, hiru izan baitira, lekuz aldatze horien ondorioz, beste leku batzuetan lan egiteko Ikastegia utzi dutenak. Cristina Pujana, Jesús M^a Basterretxea eta Pilar Galdeano dira horiek. Azken urteetan zuzendaritzako idazkaria izan den Cristina Pujana hemendik aurrera Gurutzetako Ospitaleko Pediatriako Irakasgunean izango da. Bere ordezkari, Carmen Cabero da zuzendaritzako idazkari berria. Jesús M^a Basterretxea, goizeko atezain nagusia, plaza berean dago Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Eskolako atezain nagusi berria José Félix Ortega da. Azkenik, azken aldian idazkaritza lanean aritu den Pilar Galdeano, Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Fakultatera joan da. Bere ordezkari Iñaki Santiago dago Ikastegian. Eskolako zuzendaritzak guztiei eskertu nahi dizkie egindako lana eta adierazitako ardura. Era berean, lanpostu berrietan aukera onak izan ditzatela espero dugu. Horrez gain, Eskolara etorri direnak gure artean gustura egotea nahi dugu bene-benetan.

ESKOLAREN POLITIKA ETA ESTRATEGIA

Eskola Batzarra: Apirilaren 29an egindako Eskola Batzarra honako akordio hauek onartu zituen: 1) 2013/2014 ikasturteko eskola egutegia onartzeko proposamena baiesten da; 2) 2013/2014 Gradu eta Diplomaturako azterketa egutegia onartzeko proposamena baiesten da; 3) Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Gradu ordutegiak onartzeko proposamena baiesten da; 4) Heziketa zikloetako ikasgaiak gaindituta izateagatik kreditu aintzatespenerako taula onartzeko proposamena baiesten da; 5) 2012/2013ko eta 2013/2014ko Gradu Amaierako Lanak matrikulatzeko eta defendatzeko egutegia onartzeko proposamena baiesten da; 6) Irakaskuntzarako azpiegitura eskaerari oniritzia ematen zaio; 7) 2013/2014 ikasturtean lehenengo aldiz euskaraz eskainiko diren ikasgaiak onartzeko proposamena baiesten da; 8) Ikasleek Marinaledara egindako bisitaren inguruko jarduerak direla eta, aitortuko zaizkien kredituen berri beste Batzar batean emango da; 9) Bigarren lauhilabeteko ikasgaien matrikularako epea luzatzea onartzeko proposamena baiesten da.

EHUNDU konpromisoen hirugarren dokumentua: Maiatzaren 3an, Eskolako Kalitate Batzordeko kideak, UPV/EHUko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzako ordezkariekin bildu ziren, 2013ko konpromisoen dokumentua onartzearen. Konpromiso horrekin honako eremu hauek hartzen dituzten helburuak eta adierazleak zehaztu behar dira: 1) Curriculumaren bilakaera (akademia etekina, hezkuntza praktika, eleaniztasuna); 2) Bilakaera profesionala (metodologia berrietan heziketa, eleaniztasuna); 3) Lurralde eta gizarte bilakaera (ezagutzaren hedakuntza,

IKDjendeartea); 4) Erakunde bilakaera (irakaskuntza koordinazioa, IKDguneak, erakunde profila, erakunde giroa); 5) Hezkuntza aktiboa (unibertsitateko jardueretan parte hartzea). Konpromisoen dokumentuan adostutako helburuen Eskolaren lorpen maila % 98 izan denez, baimena ematen da EHUNDU konpromisoen hirugarren dokumentua sinatzeko. Programaren ekonomi laguntzaren hirugarren zatian esleitutako zenbatekoa 999.6 eurokoa da.

“Enpleguaren eta Lan Harremanen eremuan Praktika Positiboak” lehiaketa: Lehiaketan parte hartzea nahi zutenek Eskolak Facebook-en duen kontuan euren ekarpenak sartzeko epea apirilaren 30ean itxi zen. Ángel Elías, Eskolako Zuzendariak, Koldo Irurzun irakasleak eta Komunikazio Batzordeko kideak eta Laura Fernández, Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Graduoko ikasleak osaturiko Epaimahaiak, maiatzaren 16an egindako bileran, honako hau erabaki zuen aho batez: 1) Eskolako ikasleria: saria Javier Etxebarria ikasleari ematea, “Euskal sindikalismoa eta enpresa transnazionalen jokaerak aztergai” izenburupean bultzatutako jardunaldiagatik, lehiaketaren helburuei eta edukiei buruzko eztabaida zabaltzeko balio izan duelako. 2) Batxilergoko 2. mailako ikasleria: saria emateke uztea, ekarpenen maila nahikoa izan ez delako. 3) Irabazi asmorik gabeko erakundeak: saria Mungiako Institutuari ematea, bere ikasleriaren artean lehiaketaren edukien eztabaida zabaltzeagatik eta bultzatzeagatik. Epaimahaiaren erabakia, hala nola ekitaldi publiko batean egingo den sarien banaketaren data, sarituei jakinaraziko zaie.

Eskola komunikabideetan: Azken aldian Eskolako irakasleen ekintzak, argitalpenak eta lanak hainbat bider azaldu dira komunikabideetan. Batetik, Lan Segurtasun eta Osasunean Masterrak antolatutako apirilaren 10eko “Krisi ekonomikoa, lan erreforma eta lanean segurtasuna eta osasuna XXI. mendean” mahai inguruari buruz, Juango Basterrak sinatuta Gara egunkariak “Osalan tendrá otro 20% menos de presupuesto para potenciar la salud” artikulua argitaratu zuen (<http://gara.naiz.info/paperezkoa/20130413/397445/es/Osalan-tendra-otro-20-menos-presupuesto-para-potenciar-salud>). Bestetik, krisi garaietan lan eta gizarte eskubideei buruzko *Lan Harremanak* aldizkariaren 26. alea, berriro azaldu da komunikabideetan. Zehazki, “Cuidar a otras personas es más que un trabajo” titulupeko artikuluan, Maider Iantzi familia eremuko zaintzaile batzuekin, COMFIN nafar koordinadora berriko feministekin eta CCAS Hendaia-ko gizarte ekintzako herri-gunearekin aritu zen. Era berean, *Lan Harremanak* aldizkariaren ale horretan “La reforma de la pensión de jubilación realizada por la Ley 27/2011” artikulua argitaratu zuen Jaime Fernández Orteri elkarrizketa egin zitzaion, erretiro pentsioen erreformak izango dituen ondorioei buruzkoa. Artikulua honako estekan irakur daiteke oso-osorik, <http://gara.naiz.info/paperezkoa/20130308/391429/es/Cuidar-otras-personas-es-mas-que-trabajo>. “La “Plataforma contra el BBVA” se moviliza ante la junta de accionistas” Juanjo Basterraren martxoaren 12ko artikuluan “Plataforma contra el BBVA”-k, Bilbon, Zirika Herri gunean (antzinako Gatazkan) “Con tu dinero” dokumentalak eskainiko zuela adierazi zen. Ekintza Juan Hernández irakasleak aurkeztu zuen (<http://gara.naiz.info/paperezkoa/20130312/392244/es/La-Plataforma-contra-BBVA-moviliza-ante-junta-accionistas>). Juan Hernández irakasleari berari Diario Norteko Eduardo Azumendik elkarrizketa egin zion, “El Corte Inglés y Mango deberían ser juzgados en España por lo ocurrido en Bangladesh” (http://www.eldiario.es/norte/euskadi/Corte-Ingles-Mango-Espana-Bangladesh_o_132637372.html). Irakasleek komunikabideetan argitaratu dituzten artikuluei dagokienez, honako hauek aipa daitezke: “Desobediencia civil contra la austeridad capitalista” José Ramón Castaños eta José Luis Longarte (Gizarte Eskubideen Eskutitzaren Bozeramaileak), Juan Hernández Zubizarreta eta Mikel de la Fuente (UPV/EHUko Irakasleak), Herria 2000 Eliza, 242 zb., 2013, eta “Bangladesh: Mango y el Corte Inglés”, Juan Hernández Zubizarreta (<http://gara.naiz.info/paperezkoa/20130516/403101/es/Bangladesh-Mango-El-Corte-Ingles>). Azkenik, “Euskal sindikalismoa eta enpresa transnazionalen jokaerak aztergai” jardunaldiaren harira, haren antolatzailerak, Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Graduoko ikaslea den Javier Etxebarria, Ramón Bustamante kazetariak elkarrizketatu zuen Herri Irratian.

Gehien eskatutako 50 titulazioak *El Mundo* egunkariaren rankinga: Maiatzean 8an *El Mundo* egunkariak argitaratutako ranking berri honetan gaiari buruzko Graduoko ikasketei dagokienez, UPV/EHUko Lan Harremanen Eskola hirugarren tokian agertzen da Pompeu Fabra eta Carlos III.a Unibertsitateen atzetik.

Incorpora: “Zure lurraldearen prospekzioa hobetzeko baliabideak”: Maiatzaren 21aren eta uztailaren 8aren bitartean (16.00etatik 18.00etara), Ekonomia Solidarioaren Behatokiak, UPV/EHUren laguntzarekin antolaturik, Eskolako 1.4 ikasgelan Incorpora Ikastaroa egingo da (<https://campus.incorpora.org/FCCCurso.aspx?IDAreaTematicaPrincipal=36&IDAreaTematica=36&IDCurso=160>). Ikastaroak lurraldea du aztergai ikuspegi guztietatik, bai eta beregan lan egiten duten agente guztiak ere. Bertan ikusiko da lurraldea zer den, zer egiten duten agente horiek, zein ahalmen duen gure erakundeak aztertutako lurraldean eragiteko eta zein abagune berri sor daitezkeen inguratzen gaituen errealitate osoa sakon aztertzen bada. Ikastaroaren azken saioan guztien artean lurraldearen analisia ikuspegi anitzetik eraikitzea bilatzen da. Helburua praktiken eta teoriaren bidez ikasleak laneratzean eragiten duten kontu guztien gaineko hausnarketa ahalmena handitzea da, hala nola, eskatutako ariketek pizgarri gisa joka dezatela prospektugilea gai izan dadin bere “*landa lanak*” fokatzeko bereak dituen irizpideak ezarritik. Metodologiari dagokionez,

heziketa semipresentziala da. Ikaslea 2 saiotara bertaratu beharko da (ikastaroaren hasieran eta amaieran) eta online heziketa egin beharko du 36 orduz. Horretarako campus birtualera joko du, non materiala, baliabideak, glosategia eta edukiari buruzko edozein zalantza argitzeko tutorea izango dituen. Ikastaroak 40 ordu iraungo ditu. Horietatik 36 online heziketara zuzenduko dira, eta beste 4ak hasierako eta amaierako saioetara. Ikasleak gutxi gora behera asteko 6 ordu irauliko ditu edukien irakurketarako eta ariketak egiteko. Ikastaroaren edukia era honetan banatzen da: 1. Modulua: Jarduera-eremua definitzea; 1. Blokea (Hautemate eta identifikazio baliabideak); 2. Modulua: Agenteak hautemateak; 3. Modulua: Marko orokorrean prospektugile gisa nire profila kokatzea; 4. Modulua: Lurraldearen beharrak eta abagune berriak hautemateak; 5. Modulua: Lurraldearen eragozpenak hautemateak; 2. Blokea (Eragozpenak gainditzeko baliabideak); 6. Modulua: eragozpenak gainditzea.

BALIABIDEAK

Ángel Elías, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Zuzendaria: Ikastegian martxoaren 13an egin ziren hauteskundeetan Ángel Elías izan zen hautatua Eskolako Zuzendaria izateko. Zentsua 664 pertsonen osatzen zuten (582 ikasle, 12 AZP, 35 IIP iraunkorra eta 15 beste PDI). Emandako boto kopurua 120 izan zen (80 ikasle, 12 AZP, 26 IIP iraunkorra eta 2 beste IIP); horietatik 96 baiezkoak (58 ikasle, 10 AZP, 26 IIP iraunkorra eta 2 beste IIP), 21 zuriak (19 ikasle eta 2 AZP) eta 3 deusezak (guztiak ikasleen artean).

Eskolako zuzendaritza taldean zuzendariordetza bat kentzea: Eskolako zuzendaritzarako egindako azken hauteskundeak eta gero, Errektoregotik adierazi digutenez, Ikastegien Oinarrizko Arautegiarekin bat, bi zuzendariordetza tokatzen zaizkigu, eta ez hiru, orain arte izan den moduan.

2013rako Eskolaren aurrekontua: Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUri dagokion ekarpenari ezarri dion murrizketa dela eta, 2013ko ikasturterako, Ikastegien aurrekontuari % 40 murrizketa egingo zaio. Murrizketa hori ikastegi guztiei pasa den urteko aurrekontuari linealki kenduko zaie. Dagokion kalkuluak eginda, Lan Harremanen Eskolari 16.320,86 euro dagozkie.

Irakaskuntzarako azpiegitura: Eskolak Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzan 2013rako irakaskuntzarako azpiegituraren eskaria aurkeztu du. Eskaeran honako hau eskatzen da: 1) 0.2 irakaskuntza gelarako 24 mahai eta 48 aulki; 2) tutoretza gelarako 8 ordenagailu eramangarri; 3) 1.4 informatika gelarako mahai gaineko 30 ordenagailu. Eskatutakoaren zenbatekoa 42.014,65 eurokoa da.

Idazkaritza itxita: Abuztuaren 12tik 23ra Eskolako idazkaritza itxita egongo da.

ALIANZAK

SARTU Fundazioarekin lankidetzak Hitzarmena: Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak Gizarteratzeko Euskal Herriko SARTU Fundazioaren eta UPV/EHUri arteko lankidetzak Hitzarmena sina dadila onartu du. Hitzarmen horren helburua da lankidetzak marko bat ezartzea UPV/EHUri eta SARTUk elkarrekin hainbat ekimen aurrera ateratzeko honako arloetan: gizarteratzea, enplegua, prestakuntza, ekintzailatza, ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza, balioen gaineko sentsibilizazioa eta heziketa. Lankidetzak honako eremuetan gauzatuko da: biek batera bultzatu eta antolatuko dituzte ikerketa programak honako gaietan: gizarteratzea eta laneratzea, enplegu politikak eta programak eta ekintzailatza; gizarteratze eta laneratze, enplegu programa eta ekintzailatzaren gaineko gaiak unibertsitate curriculumean sartzea bultzatuko duten prestakuntzarako ekintzak antolatu; UPV/EHUri Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako ikasleek praktikak eta gradu amaierako eta masterreko lanak egingo dituzte, batez ere SARTUn dauden enpresa eta entitate sozialetan, betiere kasuan kasuko lankidetzak hitzarmena sinatu ondoren; Unibertsitateko kudeaketa arloetan gizarteratzeko irizpideak eta gizarte klausulak erabil daitezkeen bultzatuko duten ekintzak prestatu; gizarteratze, enplegu eta ekintzailatza gaineko gaietan unibertsitateko kideei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak antolatu; ekintzailatzarako kultura eta gizarteratzeko enpresen sorrera sustatuko dituzten programetan parte hartzea bultzatu; elkarrekin antolatu gizarteratzea eta laneratzea, enplegu politikak eta programak, eta ekintzailatza eta gizarte aholkularitza sustatzen dituzten jardunaldi, mintegi eta biltzarrak; elkarri aholkuak eman bi erakundeentzat interesgarriak diren gaietarako ikasketak planifikatu, antolatu eta gauzatzerakoan; etab. Jarraipen Batzordean egongo dira: Lan Harremanen Eskolako Zuzendaria (batzordeburua), SARTUko Lehendakaria (idazkaria), Lan Harremanen Eskolako Zuzendariak aukeratutako UPV/EHUriko izango den bokala eta SARTUko Lehendakariak

aukeratutako bertako bokala. Hitzarmena 2013ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta berez luzatuko ahalko da urtebetez.

Jesús M^a Leizaola Fundazioarekin eta Bilbao Ekintza EPEL-ekin lankidetza Hitzarmenak: Bi erakundeekin sinaturiko Hitzarmenak berez luzatu dira. Maiatzaren 2an Jesús M^a Leizaola Fundazioarekin izenpetutako Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea bildu zen. Ángel Elías (lehendakaria), José Antonio Dorronsoro (idazkaria), Nieves Arrese (1. bokala) eta Patxi Zubiaur (2. bokala) batu ziren. Honetan ere, aurrera eramandako jardueren balorazioa oso positiboa izan da. Horrez gain, datorren ikasturtean berriro ere Boloniara bidaia antolatuko dela baieztatu zen (hirugarren aldia izango da). Badirudi hamar bat ikasle joan ahal izango direla.

Ángel Elías izendatu dute REAS-ek eta UPV/EHUk izenpetutako lankidetza Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko lehendakari: Eskolako Zuzendaria den Ángel Elías kargu horretarako izendatu dute Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren Errektoreordea den Maite Zelaiaren eskuordetzan.

“Gizarte inklusiboa lortzearen erronka”, SARTUren 25. urteurrena ospatzeko jardunaldiak: SARTU Federazioak eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak *“Gizarte inklusiboa lortzearen erronka”* jardunaldiak antolatu dituzte irailaren 19rako eta 20rako. Jardunaldia SARTUren 25. urteurrena ospatzeko ekintzetako bat da. Gaur egungo krisia sistema eta eredu krisia da. Aukera polita ere bada, ordea, gizartean solidaritatea eta konpromisoa oinarri izango dituzten loturetan sakontzeko. Eta ezinbestez, horretarako beharrezkoa izango da zerga-, ekonomia- eta gizarte-politika berritzaileak sortzea. Jardunaldien helburua da inklusioa alderik alde zeharkatuko duen begiradan aurrera egitea, eta kultura inklusibo horretara eramango gaituen bidean gizon-emakumeei lehentasuna ematea. Programak honako pertsona hauen parte hartzea aurreikusten du: Íñigo Lamarca, Arartekoa, *“Giza Eskubideak, krisi-garai honetarako inklusio-politiken oinarri”*; Joaquín García Roca, Soziologian Doktorea, Valentziako Unibertsitatea, *“Krisiaz haratago, inklusioa ardatz izango duen etika baten alde”*; Alfonso Dubois, Ekonomian Doktorea, UPV/EHU, *“Inklusibitate-krisiaren alderdi ekonomikoak: aberastasunaren banaketa bidezkoa”*; Luis Sanzo, Estatistika Arloko Arduraduna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, *“Krisiaren giza geografia. Nahitaez jakin beharreko datuak, esku hartuko badugu”*; Sandra Ezquerro, Soziologian Doktorea, Vic-eko Unibertsitatea, *“Zaintetaren ekonomiak duen ahalmen eraldatzailea, politika inklusiboa den aldetik”*; Ana Arriba, Soziologian Doktorea, Alcaláko Unibertsitatea, *“Inklusioaren aldeko politika sistemikoa antolatu beharra”*; Joseba Zalakain, SiiS zentroko Zuzendaria, *“Inklusioaren aldeko joera eta ekinbide berritzaileak. Nazioarteko ikuspegia”*. Horiez gain, solasaldia, gizarte-inklusiokoan ikertzen dabilen arteko lan-bilera eta inklusioaren aldeko eragileen arteko mahai-ingurua ere egongo dira.

IKASLEAK

Eskolako irakasleriaren bidaia El Coronilera eta Marinaledara: *guk ikasleok* ikasle elkarteak El Coronilera eta Marinaledara (Sevillan) bidaia antolatu zuten, Marta Álvarez irakasleak ematen duen Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Graduaren 3. mailako *“Negoziaziorako Teknikak”* ikasgaiaren landa praktika gisa. Bidaia antolatzeko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak diru laguntza eman zuen. Bidaian parte hartu zutenak Bilbotik apirilaren 12an ateratu, El Coronilen eta Marinaledan 13an egon eta 14an itzuli ziren. El Coronilen Langileen Andaluziar Sindikatuaren Asanblada Nazionalera bertaratzeko aukera izan zuten, non lurrak okupatzeko dinamikak, okupazioak direla eta sortutako gatazkak, gatazken kudeaketa, asanbladan erabakiak hartzea, etab. nola antolatzen diren lekuko izan ziren. Bertaratutako arteko laguntasuna eta elkar sostengua azpimarratzen dute. Jarraian herri-bazkarira joan ziren. Bertan asanbladan parte hartu zutenak zeuden, eta iritziak elkar aldatzeko abagunea izan zen. Marinaledan udaletxea bisitatu zuten, non hiru zinegotzirekin bildu ziren. Han Marinaleda sistemaren hastapenak azaldu zizkieten: etxebizitza, lana, bizimodua (haurrak, gazteak, helduak, zaharrak). Egonaldia herriaren bisitarekin amaitu zen, zeinaren bidez egoiliarren aisialdiaz gozatu zuten. Pertsona guztien iritziz bisitako esperientzia paregabea izan da. Hori dela eta, lerro hauetatik *guk ikasleok* elkarteak, Marta Álvarez irakaslea eta parte hartu duten ikasleak zoriondu nahi dugu, antolaketa zuzendu duten esfortzua nabarmena izan da eta.

Kalitatearen eremuan Eskolan egindako praktikak: Ikasturte osoan zehar aritu eta gero, apirilaren amaieran bukatu zituzten euren praktikak Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Graduoko ikasleak diren Estibalitz Eguskizak eta Zuriñe Menak. Horien zeregin nagusiak honako hauek izan dira: berdinaren arteko tutoretzetan parte hartzea, iritzi-artikulu interesgarriak bilatzea eta Facebook-en bidez hedatzea eta Ekoscanen inguruan lan talde bat sortzeko oinarriak ezartzea. Aldi berean, kalitate programen eremuan heziketa jaso dute.

Berdintasunaren eremuan Eskolan egindako praktikak: Maiatzaren hasieran amaitu zituen berdintasunaren inguruan bere praktikak egin dituen Nerea Ereñagak. Nerea Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako graduatua da, eta orain Deustuko Unibertsitatean Emakumeen aurkako Biolentzian Esku Hartzea Master Ofiziala egiten ari da. Egin dituen analisisen artetik nabarmendu behar da Eskolako ikasleriak ez duela sumatzen sexua dela eta bereizkeria dagoenik. Askoren iritziz, gainera, gaitututako arazoa da, eta ez du pena merezi horren gain lan egiterik. Bestetik, Eskolako webgunea indartzea garrantzitsutzat jotzen du, eta horretarako intereseko proposamenak planteatzen ditu, horien bidez gai horri buruzko sentiberatasuna hazteko: 1) Berdintasun Batzordeak urtero lortu beharreko xedeak ezartzea; 2) Oro har eta zehazki ikasgaien fitxetan hizkuntza sexista ekiditearren ikastaroren bat antolatzea; 3) Gobernu organoetan emakumeen ordezkaritza mantentzea eta hobetzea; 4) Generoa eta berdintasuna kontuan duen Gradu Amaierako Lanen bat saritzea; 5) Ikastaroak eta jardunaldiak antolatzea, adibidez, autobabesari buruzkoak, eta horietan parte hartzea sustatzea; 6) Mainstreaming edo generoaren ikuspuntua Eskolaren jardura guztietan indartzea.

Ekonomia solidarioaren eremuan Eskolan egindako praktikak: Maiatzaren amaieran Patricia Nuñok bere praktikak bukatu zituen. Bera Lan Harremanetan diplomatua da eta enpresa bateko giza baliabideen hautatze atalean dihardu lanean. Horrez gain, orain Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako egokitze-ikastaroa amaitzeaz dago. Bere praktiken zeregin garrantzitsuena REAS osatzen duten 50 enpresekin kontaktatzea eta Eskolako ikasleriak, bai Graduak bai eta Masterretakoak ere, horietan praktikak egiteko aukera baloratzea izan da. Patriciarentzat praktikak baliagarriak izan dira arlo hori hobe ezagutzeko eta inguratzen gaituen gizarte ingurunearen beste ikuspuntu bat izateko. Gainera, datorren ikasturteari begira, gutxienez zortzi ikaslek erakunde horietan praktikak egiteko aukera izango dute.

Campus aldizkaria: UPV/EHUk editatzen duen *Campus* aldizkaria Ikastegiko zuzendaritzarekin kontaktuan jarri zen, ikasle bati eta ikasle ohi bati elkarrizketa egin nahi zietelako, Lan Harremanen eta Giza Baliabideetako Graduak ikasketen inguruko itxaropenaz eta lan errealitateaz hitz egin zezaten. Horretan parte hartuko dutenak Raquel del Pozo (ikasle ohi eta Arabako Gizarte Graduatuaren Elkargoaren lehendakari ohi) eta Evelyn Morales Sánchez (egungo ikaslea) dira. Elkarrizketa *Campus* aldizkariaren hurrengo zenbakian aterako da argitaraturik.

ESKOLAK ANTOLATUTAKO EDO BERMATUTAKO JARDUERAK

“Teknologia lanabesak gure laneko gaitasuna hobetzeko. Ingurugiroko aukerak”: Apirilaren 9an, 12.00etatik 14.00etara, Eskolako 1.6 ikasgelan, eta Marta Moreno Enpresa Zuzenbidea Saileko irakasleak antolaturik, *“Teknologia lanabesak gure laneko gaitasuna hobetzeko. Inguruko aukerak”* mahai-ingurua egin zen. Hizlaria Ruth Sala Ordóñez izan zen, Abokatua eta Bartzelonako Abokatuen Elkargo Prestuko partaidea *“Informazio eta teknologia berrien”* arloan, eta bere ponentziaren izenburua *“Elektronikaren inguruko nabaritasunak eta hauen balioa epaiketa baten aurrean”*.

“Krisi ekonomikoa, lan erreforma eta laneko segurtasuna eta osasuna XXI. mendean”: Apirilaren 10ean, Bizkaia Aretoan, 16.00etatik aurrera, Lan Segurtasun eta Osasunean Masterrak antolaturik *“Krisi ekonomikoa, lan erreforma eta laneko segurtasuna eta osasuna XXI. mendean”* mahai-ingurua egin zen. Sarrera hitzaldia, *“Iragana aztertu eta oraina kudeatu Euskadiko lan arriskuspenearen etorkizuna bideratzeko”*, OSALAN – Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Zuzendaria den Izaskun Urienek eskaini zuen. Berarekin batera mahai-inguruan honako hizlari hauek izan ziren: Laurent Vogel (ETUC Europar Sindikatuen Konfederazioa. Segurtasun, Osasun eta Lan Baldintzen ataleko Zuzendaria), *“Austeritate politikak, enplegu prekarioa eta lan segurtasuna murrizketen Europar”*; Marta Urrutia (EU-OSHA Segurtasun eta Garbiketa Europar Agentzia Korporazio Sustapenerako Arduraduna), *“Krisi ekonomikoa eta azaleratzen diren arriskuak laneko segurtasun eta osasunaren europar estrategian”*; Óscar Vargas (EWCO (Eurofund) Lan Baldintzen Europar Behatokia), *“Krisi ekonomikoaren eragina lan baldintzetan Europar”*; Ángel Elías (UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolako Zuzendaria), *“Lan legediaren erreformaren ondorioa lan segurtasun eta osasunean”*. Mahai-inguruan moderatzailea Javier Cerrato, Lan Segurtasun eta Osasunean Masterreko Zuzendaria izan zen (http://www.lan-harremanak.ehu.es/p231-content/es/contenidos/noticia/05042013_mesa_redonda/es_noticia/adjuntos/Programa_mesa_redonda_crisis.pdf). Ponentzia guztiak, banaka ere, honako esteka honetan ikus daitezke: <http://ehutb.ehu.es/es/faculties/5967.html>.

“Euskal sindikalismoa eta enpresa transnazionalen jokaerak aztergai” jardunaldia: Apirilaren 17an, Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren eta OMALen (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiaren) laguntzarekin, Sindikalitate Behatokiak antolaturik aipatu jardunaldia egin zen 0.5 ikasgelan 16.00etatik aurrera. Jardunaldian hizlari izan ziren Ane Garay, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiakoa, eta Juan Antonio Barrenetxea, UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. Parte hartze bakoitza, aldezturik, Javier Etxeberriak, jardunaldiaren antolatzaileak eta hizlariak zehazturiko gidoi baten ingurukoa izan zen. Zehazki, Ane Garay enpresa transnazionalei buruz hitz egin zuen, honako gidoi hau jarraituz: Transnazionalen historia (Latinoamerikara heltzea, hedatzea,

ezartzea); Zeintzuk dira enpresa transnazionalak gehien errepikatzen dituzten jarrerak?; Latinoamerikan burututako azken nazionalizazioak (hegoaldeko subiranotasunera norakoa?); Ate birakariak (zer dira? balazta al daitezke? nola?). Juan Antonio Barrenetxeak euskal sindikalismoaz hitz egin zuen, honako gidoi honekin bat: ELA eta LAB sindikatuen arteko adostasunik ezaren arrazoi nagusiak; Euskadin eta espainiar Estatuan afiliazio tasa baxuaren arrazoiak (hori hobetzeko neurriak? zer gertatzen da Eskandinaviako Estatuetan hemen gertatzen ez dena?); Sindikatu ekintza bateratua Europan eta munduan (grebak deitzea); Tradiziozko sindikatu ekintza vs. zerbitzuen sindikalismoa; Legezkoa ez den zorra (korrituak ordaintzea). Jardunaldiaren bideoa *Lan Harremanak Telebistan* dago ikusgai, honako esteka hauetan: http://www.livestream.com/working/video?clipId=flv_d02f9e98-d7da-4874-943b-e79677b9df73&utm_source=lslibrary&utm_medium=ui-thumb eta http://www.livestream.com/working/video?clipId=flv_c56a12e8-cfca-4f65-8bbf-fac064cef562&utm_source=lslibrary&utm_medium=ui-thumb.



“Gradu Amaierako Lanak egitea eta defendatzea”-ri buruzko mintegiak: Aldizkari elektronikoaren azken zenbakian adierazi zenez, apirilaren 18an *“Gradu Amaierako Lanak egitea eta defendatzea”*-ri buruzko hiru mintegi egin ziren. Horietaz Eskolako hiru irakasle arduratu ziren, Mikel Urrutikoetxea (Bibliografia eta dokumentazioa bilatzea), Iñaki Unzueta (Gradu Amaierako Lana egiteko estrategiak) eta Juan Hernández (Gradu Amaierako Lanaren ahozko aurkezpena eta defentsa eraginkorra). Ikasle kopuru handia bertaratu zenez eta ekintzaren balorazio oso positiboa egin zutenez, irailean edo urrian mintegiok berriro eskaintzeko asmoa dago.



“Pentsioen erreforma eta iraunkortasun faktorea”: Maiatzaren 15ean, 16.00etatik 18.00etara, Eskolako 2. solairuko bilera gelan *guk ikasleok* ikasle elkarteak *“Pentsioen erreforma eta iraunkortasun faktorea”* hitzaldia antolatu zuen. Hizlaria Mikel Urrutikoetxea irakaslea izan zen.

Argazki erakusketa: Maiatzaren lehenengo hamabostaldian Eskolako bigarren solairuan meatzearen historiarekin lotutako argazki historikoak egon dira ikusgai. Erakustaldia *guk ikasleok* ikasle elkarteak antolatu du Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren diru laguntzarekin. Laguntza ekonomikoa emakumeen eta meatzearen munduaren errealitatea adierazten duten argazkiak erakusteko asmoarekin eskatu zen, *“Emakume meatzariak. Emakumeak borrokan”*, titulupean. Hala ere, azkenik ez ziren lortu xede horretarako argazki egokiak, Meatzaritzako Museoak beste ekitaldi baterako konprometiturik zituen eta. Atzerapenarekin bazen ere, argazki horiek erakusketa amaitu aurretik iritsiko zirela uste bazen ere, azkenean ez zen posible izan.

ELKARRIZKETAK



Joana Etxano Gandariasbeitia, MUGARIK GABeko Hezkuntza Taldea, Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren Epaimahaiaren inguruan

Ekainaren 7an eta 8an Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ofizialeko bilera gelan Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren Epaimahaia burutuko da. Ekitaldia Mugarik Gabek aurkezten du, eta garapenerako lankidetzaren eremuan sentiberatze hainbat jardueren barne garatuko da. Aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzako Lankidetzak eta Garapena Zuzendaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Donostiako eta Basauriko Udaletxeek diru laguntza eman dute. Gainera, Abokatuen Elkargo Ofizialaren parte hartzea garrantzitsutzat jo da eta Emakumeen Batzordeak epaiketa batean beharrezkoak diren rol ezberdinak garatzen lagunduko du. Ekainaren 7ko saioa 17.00etan hasiko da eta 8koa 10.30etan.

Galdera: Zer da Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren Epaimahaia?

Erantzuna: Emakumeen Eskubideen Auzitegia Administrazioek, zehazki, Estatuak eta Autonomia Erkidegoek, eremu ezberdinetan urratzen dituzten emakumeen eskubideak epaitzen dituen auzitegi sinbolikoa da. Gainera, eskubideok betetzea nahitaezkoa da erakunde publikoentzat, dagokion hitzarmenen bidez horien begirunerako konpromisoa hartu baitute nazioartean.

G.: Nortzuk osatzen dute?

E.: Epaimahaia zazpi pertsonak osatzen dute. Horien zeregina erabaki bat eta gomendioak ematea da. Erabakian kasu zehatz batzuen inguruan eskubideak nola urratu diren, zer urratu den, adierazten da. Baina bokazio globalagoa du, ez baita kasu horietara mugatzen. Gomendioak Administrazioetara, erakundeetara, eta gizartera zuzentzen dira, eta eskubide horiek betetzeko norantz jo behar den adierazten dute.

G.: Zeintzuk dira Emakumeen Eskubideen Auzitegi honen xedeak?

E.: Batetik, biolentzia matxistak ugariak direla ikus araztea nahi dugu, horregatik pluralean hitz egiten dugu horietaz, eta modu globalean gertatzen direla, hau da, munduko alde guztietan. Horregatik Latinoamerikako, espainiar Estatuko eta Euskal Herriko kasuak daude aztergai, ikuspegi globala ematearren. Eta nola biolentzia horiek guztiek, lekuaren eta formaren arabera ezberdinak badira ere, guztientzat erkidea den egitura-arrazoia dutela. Bestetik, legediak, legeek eta arauak, ikuspuntu androzentrikoa dutela ere ikus araztea nahi dugu, eta legediak ikuspegi feminista eta genero-ikuskera izatea bultzatu nahi dugu, gaur egun ez baitie eragiten era berean gizonei eta emakumeei, eta horren ondorioz ezberdintasuna dago. Azkenik, emakumeen indartzea ere bultzatu nahi da. Auzitegia prestatzeak eta martxan jartzeak emakumeen indarra indartzea dakar, mugimendu feministak asko egin baitu, eta asko egiten jarraitzen du, sarri ikusten ez den mugimendua edo gaizki ikusia dagoena izan arren.

G.: Auzitegi horien aurrekaririk ba al dago?

E.: Emakumeen eskubideen auzitegiak, edo kontzientzia sinbolikoa dutenak, izen ezberdinak hartzen dituzte eta, asko izan dira eta modu ezberdinetan egon dira munduan zehar. Guk asko aipatzen ditugu 1993ko Vienako Auzitegiak, Vienako Mundu Konferentziaren markoan egin zirenak, orain horien 20 urteak ospatzen dira eta, eta gu auzitegi berri bat antolatzen ari gara. Vienako Auzitegiak Mundu Konferentziarako ereduak bultzatzeko baliagarri izan ziren, baina 20 urte pasa dira eta eskubide asko urratzen dira oraindik. Euskal Herrian egingo den lehenengo Emakumeen Eskubideen Auzitegia da, eta guretzat oso garrantzitsua da. Baina esperientzia handia eta ibilbide luzea dago Latinoamerikan, Asian eta Afrikan, eta guk adibide asko hartu ditugu, asko ikasi dugu Latinoamerikakoetatik.

G.: Euskal Herrian egingo den lehenengo Auzitegi honetan zeintzuk dira ukituko diren gaiak? Zergatik aukeratu dira horiek?

E.: Guk biolentzia matxistaz pluralean hitz egiten genuen, baina hiru eremutan edo hiru eskubideen urraketan finkatu genuen. Horrela, aukeratutako eremuak aborturako eskubidea, emakumeen bizitza maila duin baterako eskubidea eta biolentziarik gabeko bizitzarako eskubidea dira. Hiru ardatz edo eskubide horiek gaur egungo egoera dela eta aukeratu ditugu. Batetik, aborturako eskubidea, aurki legea aldatuko dela dirudielako, behintzat espainiar gobernuaren adierazpenek horretara zuzentzen dira oraindik gauza argirik ez badago ere, baina egoerak balio zuela iruditu zitzaigun. Baita ere Amerika Ertaineko Estatu askotan abortua egoera guztietan debekatuta dagoelako. Emakumeentzat bizitza maila duinerako eskubidea alderdi ekonomikoekin lotu behar da. Krisi egoerak gai hori planteatzera bultzatu gintuen, krisiaz asko hitz egiten delako, batez ere, langabeziak, ez horrenbeste lanaz oro har edo alderi ekonomiko globalagoaz. Baina modu orokorrean hitz egiten da eta gizonezkoen ikuspuntutik, edo gizonengan nola eragiten duen. Hala ere, krisi hau, besteak bezala, modu ezberdinean eragiten die gizonei eta emakumeei, eta emakumeek eskubide asko galtzen ari gara, hori horrela ikusten ez bada ere. Biolentziarik gabeko bizitzarako eskubidea oinarritzko gaia da. Gaur egun ez dauka gaurkotasun berezirik, baina oinarritzko gaia iruditu zaigu, eta beti hitz egin behar da gai horretaz.

G.: Zein da erabaki edo epai horien balioa?

E.: Epaiek balio sinbolikoa dute. Ez da ohiko auzitegia, eta asmoa ez da ohiko auzitegi bat ordezte. Balioa pedagogikoa da nagusiki, eragin politikokoa, azken finean eragin politikorako baliabidea da, epaileek norantz jo behar duten adierazten baitute. Lehen esan dugunez, legegileari eta epaileei, erakunde publikoei, baita komunikabideei

eta gizarteari zuzenduriko gomendioak ere ematen dira. Baliabide horiek norantz jo behar dugun adierazten digute. Mugarik Gabetik eta beste gizarte kolektibo batzuetatik bultzatzen ari garen gure Auzitegiaren proposamena ez da Auzitegia ekainaren 8an amaitzen denean bertan behera uztea, baizik eta urte osoan zehar erabakiak eta gomendioek adierazitakoarekin jarraitzea. Beraz, balioa aplikazioaren jarraipena egitea da, horretan eragina izatea, gomendioekin bat agenda politikoa eratuz.

G.: Zer nolako hedakuntza dute materialek gizartean ezagunak izan daitezen?

E.: Auzitegia zabaltzeko blog bat eratu dugu (tribunalderechosmujeres2013blogspot.es) eta Mugarik Gabek duen webgunean informazio guztia dago. Horrez gain, barreiatzeko mailing egiten ari gara, bai eta facebook, twitter eta teknologia berriak erabiltzen. Bestetik, barreiatze jarduera paraleloak egiten dira. Pasa den asteburuan Auzitegia zabaltzeko kale-ekintzak burutu ziren Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Horietan emakumeen egoera eta lantzen diren gaiak mahai gainean jartzen zituzten antzezlanak prestatu ziren. Era berean, komunikabideen bidez lan handia egiten ari gara. Auzitegia bera strimming bidez emitituko da, bertara ezin daitekeen edonork konexioa duen ordenagailuz ikus dezan, edo geroago zatika ikusi ahal izateko. Azkenik, prozesu guztia sistematizatzen ari gara idatzizko dokumentua izan dezagun.

G.: Unibertsitateari begira, eta zehazki UPV/EHUri eta Lan Harremanen Eskolari, zein da zure iritzia egin daitekeen jarraipenari buruz eta zein da zure ustez gure gizarteko unibertsitate-emakumeen artean errealitatea?

E.: UPV/EHUri, eta zehazkiago Lan Harremanen Eskolari, eskari argia egin ahal zaio: bertaratzea, informatzea eta prozesua ezagutzea, era horretan unibertsitateak irakaskuntzan, ikerkuntzan eta abarrean ikuspegi feminista aintzat hartu ez izanaren inguruko hausnarketa eta analisisa egin ahal izateko. Transmittutakoak ez dauka ikuspegi hori eta ez da egiten, oro har, ezagutzaren transmisioa ikuspegi feministatik. Hori guztia bultzatzeko lan egitea ondo legoke, era horretan emakumeek eta gizonezkoek eskubide berberak ez ditugula ikus arazteko eta zergatian sakontzeko. Unibertsitate-emakumeak, baita gizonezkoak ere baina emakumeei zuzenago eragiten die, egoeraz ohartu beharko lirateke, eta unibertsitateari eskaria zuzendu, horrela eremu horretan kritikoagoa izateko, ikus arazteko eta aldatarantz pausuak emateko. Dakigun bezala, egoerak bere horretan jarrai ez dezan lan egin behar da, baita eremu akademikoan ere.

UPV/EHUko INTERESEKO AKORDIOAK ETA ERABAKIAK

[Erabakia, 2013ko otsailaren 14koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUko «Aldezlea» datu fitxategia sortzeko dena](#)

[Ebazpena, 2013ko martxoaren 18koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Aldezlearen Erakundearen Funtzionamenduari buruzko Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emateko dena.](#)

[Ebazpena, 2013ko martxoaren 21koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearena, irakasle lankide iraunkorrak hautatu eta kontratatze prozeduraren arautegia argitaratzeko agindua ematen duena.](#)

[Ebazpena, 2013ko apirilaren 10koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren Arloko errektoreordearena, honako hau argitaratzekoa: Graduako eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2013-2014 ikasturteko Arautegia.](#)

[Erabakia, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, 2013ko apirilaren 25koa, zenbait ikasleri bat-batean sortutako arazo ekonomikoak direla eta, Graduako eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako 2012-2013 ikasturteko Arautegian matrikula baliogabetzeari buruz jasotako zenbait zehaztapenen aplikazioa bertan behera uztea onartzeko.](#)

[Erabakia, 2013ko apirilaren 25koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUko Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegiaren 26. artikulua aldatzeko dena](#)

[Erabakia, 2013ko apirilaren 25ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, UPV/EHUko Boto Elektronikoari buruzko Araudia aldatzea eta egokitzea UPV/EHUko Estatutuetan araututako Irakasleen batzordearen, Graduoko batzordearen, Graduondoko batzordearen, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen eta Euskara batzordearen hauteskundeetara](#)

[Erabakia, 2013ko apirilaren 25ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen \(UPV/EHU\) Informazioaren Segurtasun Politika dokumentua onartzea](#)

[Euskarazko ikasmaterialgintza sustatzeko 2013ko deialdia](#)

Ikasteko gelak zabalik: Maiatzaren 18tik uztailaren 7ra arte Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko eraikin nagusiko beheko solairuko eta Bilboko Ingeniaritza GETko ikasgelak irekirik egongo dira asteburuetan, 9.30etatik 22.00etara. Beti ere, sartu ahal izateko, UPV/EHUko ikasle txartela beharrezkoa izango da.

INTERESEKO ARAU OROKORRAK

[1/2013 Legea, maiatzaren 14koa, hipoteka-zordunen babesa indartzeko, zorraren eta gizarte alokairuaren berrantolaketarako neurriak hartzekoa dena](#)

[5/2013 Errege Dekretu-legea, martxoaren 15ekoa, adin handiko langileen lan bizitzaren jarraipena mesedetzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriak hartzekoa dena](#)

[6/2013 Errege Dekretu-legea, martxoaren 22koa, aurrezte eta inbertsio zenbait produkturen, zein finantza izaerako beste neurri batzuen tituludunak babestekoa dena](#)

[156/2013 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten ez gaitasunen bat duten pertsonen hitzarmen bereziko harpidetzea arautzen duena](#)

[183/2013 Dekretua, martxoaren 19koa, zeinarekin honako programa garatzen baita: enpresa txiki eta ertainak, banako enpresarioak eta profesional autonomoak finantzarioki laguntzeko programa](#)

[ECD/760/2013 Agindua, apirilaren 26koa, Erasmus Mundus programaren titulua jaulkitzeko betekizunak zehaztekoa dena](#)

[Giza Baliabideen Barometro Globala 2013](#)



POR UN
REPARTO
JUSTO DE LA
RIQUEZA

Boletín de la Escuela Universitaria de Relaciones Laborales

Número 21, mayo 2013



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales
The University College of Labour Relations

ÍNDICE

PRESENTACIÓN	12
PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS.....	12
POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA	12
RECURSOS.....	14
ALIANZAS	14
ALUMNADO	15
ACTIVIDADES ORGANIZADAS O AVALADAS POR LA ESCUELA	16
ENTREVISTAS	18
ACUERDOS Y DECISIONES DE INTERÉS DE LA UPV/EHU	20
NORMATIVA GENERAL DE INTERÉS Y OTROS.....	20

[Euskerako edukira joateko klikatu hemen](#)



Lan Harremanen U.E.
E.U. de Relaciones Laborales



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea


PRESENTACIÓN

El presente número del boletín se hace eco, en primer lugar, de los grandes cambios que se han dado dentro del personal de la Escuela. Además, como se comprobará, el apartado relativo a la política y estrategia da muestra de numerosas novedades. Una cuestión clave es la reducción presupuestaria para este año. No obstante, se sigue trabajando con el propósito de conseguir nuevas alianzas. Por lo que al alumnado se refiere, destaca el viaje que una veintena de ellas/os hicieron en abril a Marinaleda. Por otra parte, durante estos últimos meses la Escuela ha sido marco de muchas actividades, y damos cuenta de ellas. Para concluir, hemos incluido una entrevista para dar a conocer el Jurado del Tribunal de Derechos de las Mujeres que se va a celebrar en Bilbao los días 7 y 8 de junio.

En la redacción de este boletín hemos tratado evitar el lenguaje sexista.

Si quieres enviar algo para que sea publicado envíalo aquí (nieves.arrese@ehu.es)

PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR Y DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS



Jubilación del profesor Iñaki Larrañaga: El profesor del Departamento de Sociología y Trabajo Social, Iñaki Larrañaga, que durante muchos años ha impartido docencia en la Escuela, se ha jubilado. En la última Junta de Centro, de la que él mismo es miembro, comunicó públicamente su nueva situación, y aprovechó la ocasión para dirigir a las/os presentes unas palabras de gratitud. Desde estas líneas queremos agradecerle su contribución al buen hacer de la Escuela y le deseamos que disfrute en esta nueva etapa de su vida.

Cambios en el PAS: Los traslados que se han producido en el PAS en toda la UPV/EHU a inicios del mes de mayo han afectado considerablemente a la Escuela. Tal es así que, han sido tres las/os trabajadoras/es que como consecuencia de los traslados en dicho colectivo han dejado el Centro para seguir desempeñando su trabajo en otros lugares. Es el caso de Cristina Pujana, Jesús M^a Basterretxea y Pilar Galdeano. La primera, que durante los últimos años ha sido secretaria de dirección, está ahora en la Unidad Docente de Pediatría del Hospital de Cruces. En su lugar, la nueva secretaria de dirección es Carmen Cabero. Jesús M^a Basterretxea, portero mayor del turno de mañana, ocupa esa misma plaza en la Facultad de Ciencia y Tecnología. El nuevo portero mayor de la Escuela es ahora José Félix Ortega. Por último, Pilar Galdeano, que en el último período ha trabajado en secretaría, se ha trasladado a la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales. Su lugar en el Centro lo ocupa Iñaki Santiago. Desde la dirección del Centro queremos agradecerles a todas/os ellas/os su trabajo y dedicación durante el tiempo que han permanecido en la Escuela. Asimismo, esperamos que el trabajo en sus nuevos destinos responda a sus expectativas. De igual modo, deseamos que las personas que han venido a la Escuela se sientan a gusto entre nosotras/os.

POLÍTICA Y ESTRATEGIA DE LA ESCUELA

